Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

# *Juanita Lizarralde Eskibel*

*Antzuola, Gipuzkoa (1926-2015)*



Aurkibidea

## Biografia



Irimoegibarrena auzoko Arrandariozaeta baserrian jaio zen 1926an. Aita bertakoa zuen eta ama Arrasatekoa, Bedoña auzokoa. 7 anai-arreba ziren. Gerra garaian Antzuolan eskolarik ez zegoen eta Oñatiko Sarramendin ibili zen. Dena den, guztira ere ez zuen eskolara askorik joateko aukerarik izan. Baserriko bizimoduaren eta, oro har, antzinako bizimoduaren gaineko azalpen ugari ematen ditu.

# Zintak

## ANT-069

- **Proiektua**: Deba Eskualdeko Ahotsak - Antzuola
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane
- **Data**: 2009-03-13
- **Iraupena**: 62 min
- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Etxeberria, Idoia

## ANT-081

- **Proiektua**: Loramendi Euskara Elkartea
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirre Aranguren, Iraitz
- **Data**: 1997-01-01
- **Iraupena**: 28 min
- **Euskarria**: Audio Analog
- **Emalea**: Euskara Elkartea, Loramendi

# Pasarteak

## 1. 'Cara al Sol', eskolan

- **Erref**: ANT-069/003
- **Iraupena**: 0:01:07. **Hasi**: 00:01:09. **Bukatu**: 00:02:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

**Laburpena**:
<p>Eskolan, <em>Cara al Sol</em> kantatzen zuten. Bederatzi urte zituen gerra hasi zenean. Soldaduak egon ziren Antzuolan. Lehenengo Antzuolan ibili zen eskolan, gero Oñatin, Sarramendi auzoan. Gutxi joaten ziren eskolara.</p>

## 2. Sarramendiko eskola

- **Erref**: ANT-069/007
- **Iraupena**: 0:03:13. **Hasi**: 00:04:36. **Bukatu**: 00:07:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

**Laburpena**:
Irimoegi auzoko Arrandari baserrikoa da. Sarramendiko eskola gertu geratzen zen. Koroso. Kalean eskolarik ez zegoen gerra denboran. Gero, urtebetean kalera joan zen eskolara. Sarramendiko eskolan ere erdaraz; euskaraz eginez gero, zigorra izaten zuten: hau da, bizkarkada egur eramatea, bazkaria prestatzeko. Han egosten zuen maisuak janaria. Bertan bizi zen, eskolan. Oñatiarra zen.

## 3. Dotrinaren garrantzia

- **Erref**: ANT-069/009
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:07:55. **Bukatu**: 00:10:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

**Laburpena**:
Irakurtzen eta eragiketak egiten ikasten zuten eskolan. Ordutegia. Dotrina ere bai. Etxean ere uste zuten inportanteagoa zela dotrina eskola baino. Jolasean ibiltzen ziren, baina gutxi. Lizargarate inguruan ibiltzen ziren.

## 4. Aita bertakoa, ama Arrasatekoa

- **Erref**: ANT-069/010
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:10:05. **Bukatu**: 00:11:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

**Laburpena**:
Oñatiarrak ziren beste ikasleak. Zazpi senide ziren, ahizpa eta biak txikienak. Aita zen baserrikoa, ama Arrasatekoa. Bedoñatik baserri zulo batera joan zen.

## 5. Jaunartzeak

- **Erref**: ANT-069/012
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:11:40. **Bukatu**: 00:12:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak

**Laburpena**:
Jaunartze txikia egin zitueneko kontuak. Gero, gerra etorri zen. Jaiero mezetara. Etxean ikasi zuen dotrina. 11 urterekin jaunartze nagusia egiten zen.

## 6. Argitu aurretik mezara

- **Erref**: ANT-069/013
- **Iraupena**: 0:02:47. **Hasi**: 00:12:45. **Bukatu**: 00:15:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea

**Laburpena**:
<p>Lasta-azaoak piztuta joaten ziren goizaldean mezara. Gariari su emanda. Hiru ordu laurdeneko biderako hiru multzo behar zituzten. Bideak ez ziren onak. Ahal denik eta dotoreen joaten ziren kalera. Eguraldi txarrarekin, gona altxatzen zuten, ez zikintzeko. Zapatak senitarteko baten etxean izaten zituzten, aldatzeko. Jaztetxea.</p>

## 7. Ardizain umetatik

- **Erref**: ANT-069/014
- **Iraupena**: 0:04:23. **Hasi**: 00:15:32. **Bukatu**: 00:19:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

**Laburpena**:
<p>14 urte arte ez zuen harremanik Antzuolakoekin. Ardiak eta behiak zituzten. Ardizain asko ibiltzen zen, umetatik. 65-70 bat ardi izaten zituzten: neguan etxean eta udan mendian. Bildotsak. Aitak jezten zituen. Gazta egiten zuten. Amak batez ere. Emakumeen lanak baserrian. Gizonak feriara ere joaten ziren, eta Aste Santuko prozesiora eta meriendak egiten zituzten; andreak etxera, eta umeak ere bai.</p>

## 8. Lana, gizonen pare

- **Erref**: ANT-069/016
- **Iraupena**: 0:03:19. **Hasi**: 00:21:00. **Bukatu**: 00:24:19
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

**Laburpena**:
Andreek gizonak beste egiten zuen lan baratzean. Garia, erremolatxa... Ganaduekin gizona ibiltzen zen. Gazta saltzen zuten, bildotsak... Patata, babarruna, artua, garia. Ama joaten zen kalera saltzera, Bergarako plazara. Astoekin jaitsi, eta autobusez. Bildotsak aitak saltzen zituen. Andre batzuek hamarretakoa egiten zuten Bergaran.

## 9. Babarrunak egunero

- **Erref**: ANT-069/018
- **Iraupena**: 0:02:28. **Hasi**: 00:24:41. **Bukatu**: 00:27:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

**Laburpena**:
<p>Harakina etxera joaten zitzaien. Aitak bildots onak hazten zituela dio. Janaria ekologikoa zen lehen. Aste guztian babarruna eta jaian garbantzua jaten zuten. Morokila. Gaztaina egosiak eta erreak. Berakatz salda.</p>

## 10. Platanoak eta laranjak

- **Erref**: ANT-069/020
- **Iraupena**: 0:03:00. **Hasi**: 00:27:23. **Bukatu**: 00:30:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

**Laburpena**:
Kanpotik, platanoak eta laranjak. Urtean bi-hiru ladiz jaten zituzten. Amak errege egunean zuen urtebetetzea, eta oilarra jartzen zuen saltsan. Eta Bergarako tostoiak. Kafea aitak eta amak hartzen zuten. Ezkondutakoan, anaiak ere bai. Etxean, edan, ura. Zahagia gari lanetarako. Likoreak gutxi.

## 11. Gari-jotzea

- **Erref**: ANT-069/021
- **Iraupena**: 0:03:52. **Hasi**: 00:30:23. **Bukatu**: 00:34:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

**Laburpena**:
<p>Gari-jotzea eta belarra ontzea. Ardo zahagia orduan erabiltzen zen. Auzolanean egiten ziren gari lanak. Pontxea. Garia azaroan erein eta uztailean ebakitzen da. Eta gero jo, makinarekin. Lau bizitzako etxea zen, eta hiru familia sozio ziren; besteak harrian jotzen zuen. Andreak garbitu ere ezin ziren egin gustura gero; errekan bainatzea ere bekatua zen. Gari-jotzearen ondoren merienda egiten zuten.</p>

## 12. Artoa eta ogia

- **Erref**: ANT-069/022
- **Iraupena**: 0:01:56. **Hasi**: 00:34:15. **Bukatu**: 00:36:11
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserria » Baserriko lanak » Errota
- Baserria » Baserriko lanak » Artoa

**Laburpena**:
<p>Artoaren lanak. Artoa zuritzea gariarena baino hobea da, ez da hain zikina. Errotara eramaten zuten, eta gero ogia eta taloak egiten zituzten. Antiguan zegoen errota eta Altzarten ere bai. Astoarekin, kalera. Labeko sua.</p>

## 13. Ura eta argia

- **Erref**: ANT-069/023
- **Iraupena**: 0:03:34. **Hasi**: 00:36:11. **Bukatu**: 00:39:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

**Laburpena**:
Etxean bazuten ura. Gizonak ohera joandakoan garbitzen ziren. 14 urte zeuzkanean jarri zuten argia. Aurretik, karburoarekin ibiltzen ziren; ur tantekin egiten zuen argia. Hurrengo egunerako, bonbilla ez zebilen ondo. Errota batetik zetorren argia. Gerra hasi zen egunean, karburoa erostera joan zen kalera. Milizianoak zebiltzan, eta kamioiak.

## 14. Lixiba egitea

- **Erref**: ANT-069/024
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:39:45. **Bukatu**: 00:41:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

**Laburpena**:
Arropa garbitzea: lixiba. Barrikak, trapuarekin. Xaboia sutan urtu eta bota. Kolore ona izateko, sutako hautsa botatzen zitzaion, lejia moduan. Labaderoa etxe ondoan zegoen.

## 15. Xaboia etxean egiten zuten

- **Erref**: ANT-069/025
- **Iraupena**: 0:03:39. **Hasi**: 00:41:25. **Bukatu**: 00:45:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

**Laburpena**:
Gerra denboran etxean egiten zuten xaboia. Ura, olioa eta sosa kaustikoa; usaina emateko, labanda edo erromeroa. Xaboia nola egiten duen orain, prozesua. Lehen, ganaduaren gantza erabiltzen zen olioaren ordez. Txinbo eta Lagarto ere beti ezagutu ditu.

## 16. Menda-belarrezko erratza

- **Erref**: ANT-069/027
- **Iraupena**: 0:02:17. **Hasi**: 00:45:42. **Bukatu**: 00:47:59
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

**Laburpena**:
<p>Etxea garbitzeko lejia erabiltzen zuten. Meza entzun ondoren, menda batzen zuten; harekin garbitzen zuten etxea. Igandetan mutilek ganaduarendako jana eramaten zuten, eta neskek etxea garbitu. Makila bati sokarekin ondo lotu, eta erratza egiten zuten menda-belarrarekin. Ozpinarekin garbitzen zituzten kristalak, egunkari orriekin.</p>

## 17. Portzelanazko lapikoak

- **Erref**: ANT-069/028
- **Iraupena**: 0:03:14. **Hasi**: 00:47:59. **Bukatu**: 00:51:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura

**Laburpena**:
Bazkaria egiteko ontziak. Portzelanazko lapikoei zuloa egiten zitzaienean, telarekin ixten zuten. Zartaginak baziren, burdinazkoak. Bost urte zeuzkala, etxea erre zitzaien; ordura arte, beheko sua. Gero, ekonomika. Gaztak ketzen ari zirela hartu zuen sua etxeak. Asegurua bazuten.

## 18. Bi etxetan, lau bizitza

- **Erref**: ANT-069/030
- **Iraupena**: 0:02:32. **Hasi**: 00:51:45. **Bukatu**: 00:54:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

**Laburpena**:
Bi etxetan lau bizitza zeuden. Arrandai Osaeta eta Arrandai Torre ziren baserriak, eta elkarrengandik gertu zeuden. 30 lagun ere egon ziren. Gerra inguruan lehengusuak ere joan ziren baserrira. Gerra kontuekin ez zen asko enteratu. Bi ikasturtetan eskolarik ez zuten izan. Soldaduak gertu ibili ziren. Hegazkinak ikusten zituzten, tirorik ez.

## 19. Errazionamendua eta estraperloa

- **Erref**: ANT-069/031
- **Iraupena**: 0:04:36. **Hasi**: 00:54:17. **Bukatu**: 00:58:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

**Laburpena**:
Gerra ostean, gosea. Ogia falta zen. Errotan ez zuten uzten ehotzen. Kalabazak jaten zituzten, ganaduarentzat izan arren. Estraperloa: Aizpurutxotik goizaldean joan zen anaia hirina egitera. Olioa, azukrea, kafea. Errazionamenduko ogia txarra zen. Lenteja, harriz beteta.

## 20. Garia eta babarruna entregatu behar

- **Erref**: ANT-069/033
- **Iraupena**: 0:03:14. **Hasi**: 00:59:11. **Bukatu**: 01:02:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

**Laburpena**:
Garia eta babarruna entregatu behar izaten zuten. Urte batean babarrunik ez zen egon, eta erosi egin behar izan zuen aitak, entregatzeko. 20 kilo edo. Errazionamendua dendetan egoten zen. Txerria hazten zuten, eta ardiak ere hiltzen zituzten. Txerriak urte guztia irauten zuen. Ogi-falta zen okerrena. Senitarteko asko joan ziren baserrira; sei hilabetean, 17 egon ziren.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

*2025-11-15*

**CC-by-sa** | **Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com